

XAKE AZKARREKO NAFARROAKO BANAKAKO TXAPELKETA.

(2024ko apirilaren 27an, Iruñean).

Torneoko Oinarriak.

Eguna:

2024ko apirilaren 27an, goizez eta arratsaldez (goizeko 10etan eta arratsaldeko 16:30an hasita).

Tokia:

Residencia Fuerte del Príncipe.

Denbora:

15 minutuko bederatzi partida izanen dira, gehi 5 segundo jokaldiko.

Izen ematea:

Epea 2024ko apirilaren 24an (12:00ean) itxiko da. Asteazkena da.

Inskripzioa egiteko: Nafarroako Xake Federakundearen webgunea. Epez kanpo ez da inskripziorik onartuko.

Nafarroan federatua izatea beharrezkoa da. Eskola lizentziak ez du balio txapelketa honetarako.

Salneurria:

Helduentzat, 10 euro; 18 urtez azpikoentzat (2005. urtean edo ondoren jaiotakoentzat), 5 euro.

Izena emateko epea itxi baino lehen ordaindu beharra dago. Bestela, jokalaria kanporatua izan daiteke.

Balizko ordutegia, jokalari nahiko baldin bada:

09:30.- Jokalari parte hartzaileak eta lehenengo parekaketa erakustea eta Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza hautatzea.

10:00.- Lehenengo txanda.

10:50.- Bigarren txanda.

11:40.- Hirugarren txanda.

12:30.- Laugarren txanda.
13:20.- Bosgarren txanda.
16:30.- Seigarren txanda.
17:20.- Zazpigarren txanda.
18:10.- Zortzigarren txanda.
19:00.- Bederatzigarren txanda.

Sailkapena jokatzeko tokian jarriko da eta Federazioaren webgunean argitaratuko da.

Txapelketan erabiliko den sistema:

Suitzar sistema erabiliko da, horretarako nahiko jokalaria badira. Jokalari gutxi baldin bada, Liga sistema erabiliko da. Multzoen bidez ere antola daiteke, beste sistemetarako jokalari gutxi edo asko baldin badira. Horren arabera, Torneoko zuzendariak erabakiko du.

FIDEn arauak:

FIDEn arauak zuzenduko dute txapelketa.

Jokalaria ez agertzea:

Kortesiako denbora 15 minutukoa izanen da.

Epaileak eta Torneoko Zuzendariak ahalmena dute Txapelketaren hasierako orduan edo Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza hautatzeko unean ez agertutako jokalaria kanporatzeko. Hori gertatzen bada, kanporatuak izanen dira.

Ez agertzearen arrazoiak idatziz azaldu beharra dago (baita tresna elektronikoak erabilia ere), agertzea ezinezkoa izan duela argitzeko. Indar handiko arrazoiak: Parekaketa egin aurretik ezagutu gabeko gorabeherak lanean, norbere osasun arazoak edo senideenak, istripuak, garrantzi handiko gorabehera pertsonalak edo familiakoak...

Kanporatutako jokalariek edo agiri bidez azaldutako indar handiko arrazoirik gabe partida jokatzera agertzen ez diren jokalariek Nafarroako Xake Federazioa ezin izanen dute ordezkatu denboraldian zehar txapelketa honi dagokion kategorian. Federazioko lizentzia ere galduko dute, horren ondorioz.

Parekaketak:

Suitzar sisteman edo multzoen sisteman, jokalarien eloan arabera eratuko da ranking-a. Horretarako FIDE eloa erabiliko da eta norbaitek ez badu bere FEDA eloa. Ondoren sistema suitzarraren arauak erabiliko dira edo jokalaria modu orekatuan banatuko dira multzoetan. Ligaren kasuan zozketaz jarriko zaizkie zenbakiak jokalariei, baina klub bereko jokalariek lehenengo txandetan jokatzeko egokituta.

Parekaketak joko aretoan erakutsiko dira eta sistema suitzarraren kasuan sistema informatikoz eratuko dira.

Suitzar sisteman egindako parekaketa baten aurka egin daiteke erreklamazioa, txanda hasi baino lehen, kasu hauetan:

- Jokalari baten aurka bigarren aldiz jartzeagatik.
- Kolore berarekin hirugarren aldiz jarraian jartzeagatik (azkeneko txandan izan ezik).

- Kolore batekin bestearekin baino hiru aldi gehiago jokatzeari (azkeneko txandan izan ezik).

Ezberdinketak:

Sailkapena txanda bakoitzean lortutako puntuen arabera osatuko da.

Puntuen berdinketa hausteko sistemak:

Suitzar sisteman: 1) Berdindutako jokalarien arteko emaitzak; 2) Jokatutako partiden kopurua, sistema suitzarreko 7 txanda baino gutxiago izan badira; 3) Bucholz (aurkaririk txarrena kenduta), ez jokatutako partidak balizko aurkari baten aurkako berdinketatzat hartuta; 4) Bucholz osoa, ez jokatutako partidak balizko aurkari baten aurkako berdinketatzat hartuta; 5) Sonnenborn-Berger (Swiss Manager programan FIDE – Sonnenborn-Berger deitua). Ezberdinketa ez bada hausten, partida bat jokatu da (zuriek 5 minutu izanik eta beltzek 4, berdinketa beltzen aldekoa izanik). Postuak ez badu garrantzirik, zozketa egingen da.

Round Robin: 1) Berdindutako jokalarien arteko emaitzak; 2) Sonnenborn-Berger, ez jokatutako partidak balizko aurkari baten aurkako berdinketatzat hartuta; 3) Koya sistema; 4) 5 minutuko bi partida, aurreko fasean erabilitako koloreak aldatuta hasteko; 5) tximista xakeko partida bakarra, koloreak zozketatuta, zuriertzat 6 minutu jarrita eta beltzentzat 5, berdinketa beltzen alde izanik.

Erreklamazioak:

Epailearen erabakien aurrean, idatziz egin behar du erreklamazio hori jokalaria, Lehiaketa eta Kirol Diziiplina Batzordeari zuzenduta, gorabehera gertatu eta berehala. Ezin bada, asmoa agertu behar du, gero prestatzeko (tartean Ordezkaritzako kideak bilduko dira).

Lehiaketa Batzordearen Ordezkaritza:

Lehenengo txanda baino lehen, jokalariek Ordezkaritza horretako lau kide aukeratuko dituzte, adinez nagusiak. Ordezkoak izanen dira horietako bi, titularrak gorabeheran sartuta daudenerako (edo erabakitze bileran egoterik ez daukatenera). Lehenengo bozketan epaile titulua duten jokalaria aukera daitezke soilik. Bigarren bozketan beharrezkoa bada, gainontzeko jokalaria ere bai.

Torneoko zuzendaria ere kide izanen da eta kalitatezko botoa izanen du.

Kide titularrak erabakitze ahalmenik ez duela Ordezkaritzako lehendakariak erabakiko du, bere kabuz edo aldeek eskatuta. Ordezkaritzak erabaki hori alda dezake.

Diziplinako ahalmenak ez ditu izanen Ordezkaritzak. Soilik epailearen edo Torneoko zuzendariaren erabakien aurkako erreklamazioak ebaztea izanen da bere lana.

Hiru kideak biltzerik ez badago, birekin har daiteke erabakia. Beharrezkoa bada, Lehendakariak har dezake bere kabuz.

Torneoko zuzendariak (edo bere ordezkoak), Ordezkaritzako lehendakari moduan, ebazpena idatziko du eta aldeei eta epaile nagusiari emanen die.

Lehiaketa eta Kirol Diziiplina Batzordearen aurrean erreklamazioa egin daiteke Ordezkaritzaren erabakien aurka. Honek ofizioz ere har dezake parte gertaera larriak badira (Ordezkaritzaren akatsak zuzentzeko edo horien aurrean Ordezkaritzak erabakirik hartu ez badu, bere borondatez edo inork erreklamaziorik aurkeztu ez duelako).

Sariak:

Lehenengo hiru jokalariek trofeoa jasoko dute.

Beste xehetasun batzuk:

Joko aretoan analisia egiterik ez dago.

Partidak jokatzeko ari diren bitartean, aretotik atera nahi izanez gero, epaileei baimena eskatzea gomendatzen da.

Torneorako inskripzioa egiteak Oinarri hauek onartzea dakar.

Antolatzailea:

Nafarroako Xake Federazioa.

Torneoko zuzendaria:

Joaquin Perez-Seoane.

2022-232ko DENBORALDIKO AZKENEKO SAILKAPENA, 7 TXANDA JOKATU ONDOREN

- 1) **Juan Labiano Hernandez (2.224) – 7 puntu.**
- 2) **Adrian Oroz Carrasco (2.046) – 6 puntu.**
- 3) **Rafael Ruiz Escobar (1.904) – 5'5 puntu.**
- 4) Adolfo Ruiz Anton (1.485) – 5 puntu.
- 5) Aitor Esparza Toni (1.538) – 5 puntu.
- 6) Iker Fernandez Cobos (1.618) – 4'5 puntu.
- 7) Raul Burriel Ureta (1.469) – 4'5 puntu.
- 8) Mario Antoñanzas Fernandez (1.294) – 4'5 puntu.
- 9) Ekain Galarza Arza (1.694) – 4'5 puntu.
- 10) Oleksii Hnatiuk (1.270) – 4'5 puntu.
- 11) Mateo Echegoyen Sadyan (1.455) – 4'5 puntu.
- 12) Angel Agudo Tena (1.870) – 4 puntu.
- 13) Axel Roviralta Montero (1.765) – 4 puntu.
- 14) Angel Esparza Toni (1.311) – 4 puntu.
- 15) Kaiet Viana Aznar (1.160) – 4 puntu.
- 16) Abel Otazu Casanes (1.306) – 4 puntu.
- 17) Iñigo Ostiz Escalada (1.233) – 4 puntu.
- 18) Gorka Gonzalo Alonso (1.083) – 4 puntu.
- 19) David Garcia Garcia (1.637) – 3'5 puntu.
- 20) Iñigo Iraizoz Moreno (1.224) – 3'5 puntu.
- 21) Ekaitz Mayordomo Lopez (1.327) – 3'5 puntu.
- 22) Helena Garcia Nuñez (1.024) – 3'5 puntu.
- 23) Joseba Otano Villanueva (1.637) – 3 puntu.
- 24) Javier Villanueva Arribas (1.201) – 3 puntu.
- 25) Andres Sempere Gomis (1.744) – 3 puntu.
- 26) Alejandro Vazquez Lopez (elarik gabe) – 3 puntu.
- 27) Diego Molinero Castejon (1.008) – 3 puntu.
- 28) Sayoa Iraizoz Moreno (1.115) – 3 puntu.
- 29) Carlos Echarte Gomez (1.018) – 3 puntu.

- 30) Xabier Lakasta Perez (elorik gabe) – 3 puntu.
- 31) Lucas Felipe Molina (1.211) – 2'5 puntu.
- 32) Daniel Aguinaga Garijo (1.434) – 2'5 puntu.
- 33) Aitor Molina Mora (elorik gabe) – 2 puntu.
- 34) Leyre Jimeno Berduque (elorik gabe) – 2 puntu.
- 35) Enrique Nieto Larrondo (elorik gabe) – 2 puntu.
- 36) Sayoa Jimeno Berduque (elorik gabe) – 2 puntu.
- 37) Santiago R. de Esparza Malabe (elorik gabe) – 2 puntu.
- 38) Ignacio Muñoz Bobo (elorik gabe) – 2 puntu.
- 39) Gonzalo Marco Basurte (elorik gabe) – 1'5 puntu.
- 40) Diego Garcia Puerta (elorik gabe) – 1'5 puntu.
- 41) Diego Lopez Morata (1.192) – 0 puntu.
- 42) Marc Felipe Molina (elorik gabe) – 0 puntu.

TXAPELKETA HONETAKO AZKENEKO HISTORIA.

2005-06ko denboraldian: **David Arjol Etxeberria**, garaile; **Gonzalo Mombiela Martinez**, bigarren; **Miguel Argaya Urdaniz**, hirugarren.

2006-07ko denboraldian: **Imanol Martinez Salas**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Rafael Ruiz Escobar**, hirugarren.

2007-08ko denboraldian: **Miguel Argaya Urdaniz**, garaile; **Angel Agudo Tena**, bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, hirugarren.

2008-09ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Ivan Tetimov**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Egoi Hernandorena De la Cruz**, hirugarren.

2011-12ko denboraldian: **Aritz Mancha Otano**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Iñaki Esparza Martinez**, hirugarren.

2012-13ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Aritz Mancha Otano**, bigarren; **Pablo Urriza Iricibar**, hirugarren.

2013-14ko denboraldian: **Luis David Jimenez Almeida**, garaile; **Mikel Ortega Lopez**, bigarren; **Iker Irañeta Unzue**, hirugarren.

2014-15eko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Miguel Argaya Urdaniz**, bigarren; **Aitor Martinez Ayesa**, hirugarren.

2015-16ko denboraldian: **Mikel Ortega Lopez**, garaile; **Daniel Roldan Marques**, bigarren; **Luis David Jimenez Almeida**, hirugarren.

2016-17ko denboraldian: **Ainhoa Ortin Blanco**, garaile; **Iñigo Ortin Blanco**, bigarren; **Daniel Roldan Marques**, hirugarren.

2017-18ko denboraldian: **Daniel Roldan Marques**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Alexandr Pedchenko Zhilkov**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian: **Daniel Roldan Marques**, garaile; **Leyre Abrisqueta Zudaire**, bigarren; **Juan Labiano Hernandez**, hirugarren.

2019-20ko denboraldian: **Martin Pascual Garcia**, garaile; **Iker Fernandez Cobos**, bigarren; **Haymar Leone Amigot**, hirugarren.

2020-21eko denboraldian: **Martin Pascual Garcia**, garaile; **Juan Labiano Hernandez**, bigarren; **Cristian Atipov Hadzhiev**, hirugarren.

2021-22ko denboraldian: **Javier Lizuain Toni**, garaile; **Javier Habans Aguerrea**, bigarren; **Haymar Leone Amigot**, hirugarren.

2022-23ko denboraldian: **Juan Labiano Hernandez**, garaile; **Adrian Oroz Carrasco**, bigarren; **Rafael Ruiz Escobar**, hirugarren.

PALMARESA, 2005-06KO DENBORALDITIK

- 1) **Luis David Jimenez Almeida – 2 titulu.**
- 2) **Mikel Ortega Lopez – 2 titulu.**
- 3) **Martin Pascual Garcia – 2 titulu.**
- 4) **Daniel Roldan Marques – 2 titulu.**
- 5) Miguel Argaya Urdaniz – Titulu bat.
- 6) David Arjol Etxeberria – Titulu bat.
- 7) Juan Labiano Hernandez – Titulu bat.
- 8) Javier Lizuain Toni – Titulu bat.
- 9) Aritz Mancha Otano – Titulu bat.
- 10) Imanol Martinez Salas – Titulu bat.
- 11) Ainhoa Ortin Blanco – Titulu bat.
- 12) Ivan Tetimov – Titulu bat.
- 13) Pedro Viñal Gutierrez – Titulu bat.

2024-04-05.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.